

 <p><b>Lanbide</b>          Euskal Enplegu Zerbitzua          Servicio Vasco de Empleo</p>	<p><b>EKINTZAIETZAKO TOKIKO PROIEKTUEN BARRUAN ENPRESA-IDEIA BERIAK SUSTATZEN DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN IRAGARKIA</b></p>
<p><b>LAGUNTZAREN XEDEA</b></p>	<p>Ekintzaileak izan litezkeen pertsonen laguntzea, enpresa ideia bat sortzera, aztertzerara eta egituratzera bakarrik dedika daitezzen, ondoren ideia hori bideragarritasun plan batean zehaztu ahal izateko.</p>
<p><b>DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUKETA</b></p>	<p>Edozein jarduera-adarreko negozio-idea bat aztertzea eta garatzea, horretara bakarrik dedikatuko direlarik ezarritako eskakizunak betetzen dituzten sustatzaileak.</p>
<p><b>ONURADUNEN ESKAKIZUNAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• EAE-n bizitzea.</li> <li>• Langabe egotea eta Euskal Enplegu Zerbitzuan- Lanbiden izena emanda egotea.</li> <li>• JEZ altan ez egotea eta Langile Autonomoen Erregimen Berezian.</li> <li>• Enpresa edo negozio berria ezartzeko bideragarritasun plan bat edukitzea.</li> <li>• Lanbidek laguntzaile gisa baimenduriko erakundeetako batean egotea ekintzailetzarako aholkularitza eta babes prozesu batean (Meatzaldeko Behargintza diru-laguntza hauek kudeatzeko erakunde laguntzailea da).</li> </ul>
<p><b>PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KONPROMISOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ideia enpresariala aztertzerara eta garatzerara bakarrik dedikatzea aholkularitza hasi (Meatzaldeko Behargintzaren kasuan 2015eko urriaren 26an hasiko da aholkularitza prozesua) eta hiru hilabetez.</li> <li>• Erakunde laguntzaileak definituriko ideia enpresarialak sortzeko eta garatzeko aholkularitza eta laguntza jarduketa guztietara joatea.</li> <li>• Laguntza aldia ideia enpresariala proiektu enpresarial bihurtuta amaitzea.</li> </ul>
<p><b>LAGUNTZAREN ZENBATEKOA</b></p>	<p>Enpresa-ekimenean sustatzaileei emango zaien gehieneko diru-laguntza <b>1.000 eurokoa</b> izango da. Zenbateko horrek % 15eko igoera izango du sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 25etik beherakoa bada. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du sustatzailea emakumezkoa bada.</p>
<p><b>ESKAERA, AGIRIAK ETA AURKEZTEKO EPEA</b></p>	<p>Eskaerak Meatzaldeko Behargintzan eta Muskiz, Abanto-Zierbena, Trapagaran eta Zierbenako Tokiko Garapen Agentzietan, bulego horietan emango dizkieten eskaera-orri ofizialean, <b>urriaren 19a baino lehenago</b>. Eskaerarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona sustatzailearen NAN.</li> <li>• Errolda ziurtagiria.</li> <li>• Lanbiden izena emanda egon izanaren epeak agertuko dituen ziurtagiri eguneratua.</li> <li>• Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, programan parte hartzea egiaztatuko duena.</li> </ul>